



Atezain mamuaren misterioa

Naturaz gaindiko ahalmenak!

ZERGATIK IRAKURRI LIBURU HAU?

Irakurle askok garatu dutelako irakurmena eta irakurzaletasuna Futboleroren lagun-taldearen abenturei eta misterioei esker. Narrazioa eta komikia uztartzen dituen istorio xume baten bidez zenbait gai jorratzen dituelako: leku berri batera iristek dakartzan zailtasunak, talde-lanaren garrantzia eta, batez ere, adiskidetasunaren balioa.

ARGUMENTUAREN LABURPENA

Hasi da ikasturtea Futbolerontzat, bai eta liga ere. Zazpi neska-mutil berrik eman dute izena futbol-taldean, eta horietako batek, Wao izeneko mutikoak, naturaz gaindiko ahalmenak dituela dirudi. Eta jokalaria guztiak direnez oso onak... seguru asko Futbolerotako batzuek taldetik kanpo geratu beharko dute! Gainera, Sevilla la Chicako ikastetxe pribatu berri batek liga jokatu nahi du, baina herri bakoitzetik talde bakarra onartzen dute. Zailtasunak zailtasun, Futboleroak bat eginda jarraituko dute, eta misterioaren bat edo beste ere argituko dute bidean.

NORENTZAT DA LIBURU HAU?

Futboleroen zale amorratuentzat, eta halako liburuak irakurtzera hainbeste animatzen ez direnentzat ere bai, bilduma honetako liburuek hainbat osagai biltzen baitituzte irakurle guztien interesa erakartzeko: misterioa, adiskidetasuna, maitasuna, lagun-taldea, kirola, irudi dibertigarriak, narrazio entretenigarria eta komikia.

JARDUERA-PROPOSAMENA

BINAKA

Bildu zure ikasleak bikoteka, eta esan azaltzeko nor den liburuen **azalean** ageri den pertsonaia, eta zergatik dituen hainbeste kamera eta mikrofono inguruan.

BAKARKA

Pakete dugu istorio honen kontalaria, baina... beste pertsonaiaren batek kontatu izan balu? Hau da, Ibyss ikastetxeko zuzendariak edo Marilyn... kontatu izan balute? Proposatu ikasleei liburuaren **laburpena** prestatzeko, bertako beste pertsonaia baten **ikuspuntua** hartuta.

TALDEKA

Hitz egin ikasgelan denon artean ea egokia den ikasgaia gainditzeko ez dutenak ikasgaia gainditzeko dutenen ondoan eserzea. Ondoren, eskatu ikasleei taldean biltzeko eta zenbait **irizpide** zehatz erabiliz **ikasgela antolatzeko**. Azkenik, eztabaidatu denon artean ea proposamen guztietatik zein ezar daitekeen ikasgelan, eta zuri egokia iruditzen bazaizu, probatu denboraldi batez.

GORPUTZ HEZKUNTZA

Liburuan, zenbait unetan protagonistak lehiari dabilta elkarren artean, eta beste une batzuetan, berriz, lankidetzan. Zerrendatu denon artean bi jarrera horiek adierazten dituzten **eszenak**; alegia, **lehia** eta **lankidetzaren** adierazten dituztenak. Gero, antolatu ikasgelan **eztabaida** bat, ikasleek erabaki dezaten bi jarrera horietatik zein nabarmendu beharko litzatekeen kirol-talde batean. Ikasle bakoitzak bere iritzia adierazi behar du, argudioak emanda (*Nire ustez, garrantzitsuagoa da lehia/lankidetzaren, zeren eta...*). Garrantzitsua da ikasleek hitz egiteko txandak errespetatzea eta besteen iritziei adi egotea, bai entzuten ikasteko eta bai norberaren aurreiritziak zalantzan jartzen ikasteko. Galderak ere egin daitezke, eztabaida osatzeko: *Norberaren garapenerako garrantzitsua al da lehiakorra izatea? Eta taldearentzat? Zer onura ditu taldean lankidetzaren aritzeak? Zer gertatzen da jokalaria batek baloia gutxitan pasatzen duenean?*

IDAZKETA-TAILERRA

Animatu ikasleak **Wao** atezainaren lekuan jartzera eta haren **egunkariko** orrialde bat idaztera. Horretarako, erabaki dezatela istorioko zer une adierazi nahi duten, eta konta dezatela lehen pertsonan, pertsonaia hori balira bezala. Jakinarazi *scrapbookingeko* elementuak erabil ditzaketela, egunkariaren sarrera osatzeko eta apaintzeko.